




Tourra 91



Miguel Indurain Tourra irabazten lehen euskal txirrindularia izango da, gaur Pariseko helmuga iragatean. Atarrabiakoak mimo handiz zaindu du bere karrera, inoiz gorputza gehiegi behartu gabe, une aproposenean mailarik gorenean izateko. Eta Tour'91 Indurainen plaza izan da. Erabateko nagusitasuna erakutsi du, eta garaipena eskuratzeko gakoak zein izan diren azaldu dizkigu Banestoko txirrindulariak. Iraganaz eta etorkizunaz ere mintzo da Atarrabiakoa.



“Tour osoan erakutsi izan dudana lasaitasuna, azalekoa, neure indarretan nuen konfidantzaren erakusgarria baino ez da izan.

Indurain: «Kostata heldu naiz honaino»


Erlojupekoetan onena, mendian eta ordekan nagusi, etsairik gabe Tourrean

MACON

Gaur Pariser helduko den etapa baino ez zaio falta Induraini Tourra irabazteko. Tramite hutsa, txirrindularitzan hasi zenetik izan duen ametsik handiena betetzeko. Munduko karrerarik garrantzitsuen irabazia du dagoeneko, baina apaltasuna nabari da nafarren hitzetan. Ezbairik gabe menderatu ditu etsai guztiak, erabateko nagusitasuna erakutsi eta gero; eta horrexegatik, agian, bere barnerako ez du ezer izugarri egin. Ondotxo daki, hala ere, Frantziako errepideetan lortu duenaren neurria, eta gaurtik aurrera Tourra irabazteak bere bizitzan izango duen eragina.


Lasaitasuna ageri du bazter guztietatik Indurainek. Txapeldunaren mentalizazio berezia ala gehiegizko hoztasuna, agian Tourra uste baino errazago irabaziko duelako. «Erraza ez da ezer —mintzo da Atarrabiakoa—. Ez dago irabazten erraza den karrerarik, eta are gutxiago Tourra. Aurtengoa aurreko urteetakoa bezain gogorra izan da, mendiko etapa gutxi zituela esan izan den arren. Ez ziren asko, baina bai oso eraginkorrak, argi ikusi denez. Nire azaleko lasaitasuna, neure indarretan nuen erabateko konfidantza besterik ez da izan».

Aurreneko astea kaskar antzerakoa izan zen Banestorentzat; orduan behintzat hala zirudien. Indurainen iritziak, Tourreko garaipena hantxe erabaki zen. «Haste hastetik, Tourra irabazteko faboritoen artean selezio handia gertatu zen. Aurreneko eguneko ihesaldia eta erlojupekoa erabakiorrak izan ziren, korredore handi batzuk ia aukerarik gabe geratu zirelako. Nahiko esperientzia dut Tourrean, eta banekien aurrene-



Bi erlojupekoak irabazteaz gain akatsik ez du egin Indurainek Tourrean.

Indurain



“Val Louronen mailot horia jantzi nuenetik, Tourra irabazteko aukera handiak ikusi ditut, Pariserako bidea luzea izan arren.

Txapeldun

«Karrera garrantzitsu asko ditut oraindik irabazteko»

MACON

Miguel Indurainek txirrindulari ororen ametsa bete egingo du gaur: Tourra irabazi. Ez da ordea horrekin aseko, eta etorkizunean maila gorenera igo den korredoreak garaipenen bideari jarraitu nahi dio. «Tourra oso karrera garrantzitsua da, ametsa edonorentzat, baina beste karrera asko dago oso garrantzitsu baita ere. Ez nuke erretiratu nahi, esaterako, Munduko Txapelketa irabazi gabe».

Etenik gabeko garaipena izan da Indurainen profesional karrera. Presarik gabe, garaipenaren garaia berez etorri arte ez du bere burua behartu nafarrak. «Gorakada mantendu egin behar da. Hasten zarenetik, Tourra irabaztea izaten da ametsa. Baina ametsak beti errealitatea baino ederragoak dira. Gero, hortxe egon zaitzezkeela ikusten duzu, gero eta hurbilago». Oraingoan, hurbildu baino bete betearen asmatu du Indurainek.

Iaz Tourrean hamargarren egin zuen Indurain eta gaur Parisen mailot horiarekin sartuko den Indurainen arteko desberdintasunak argi ikusten ditu Atarrabiakoak. «Gakoa progresioa da, eta guztiak eragiten du horretan. Indarra, esperientzia... Aurreko urtean baino Indurain indartsuagoa eta esperientzia handiagoa naizela esan daiteke, baina karrerako giltzak asko izan dira».

Aurreneko egunetako abiadura bizia, Lemond eta Breukinken ihesaldia, PDMren erretiroa, beroa... Kontu asko aztertu behar dira Indurainen garaipena azaltzeko, baina Alpe d'Huezaren eman zuen nafarrak azken kolpea, behin-betikoa.

«Bugnok ez du karrera hausten saiatzeko nahiko indar izan»

MACON

Gianni Bugno izan da Tourrean Indurainen mailaraino hurbildu den bakarra. Atarrabiakoaren etsairik arriskutsuena izan da mailot horia jantzi zuenetik, baina ez du karrera hausteko behar besteko indarrik erakutsi. Etsi egin behar izan du italiarrak. Indurainen iritziak, «Bugnok oso lan ona egin du, baina prestaketa oso luzea egin du, eta horrek kalte egin dio».

Tourra prestatzeko Giroa Vuelta baino hobea dela esan ohi da, baina kasu honetan alderantziz gertatu da. «Bugnok Giroan sasoi puntu gorena lortu zuen, eta Tourra amaitu arte horri eusten oso zaila da; denbora gehiegi. Ez dago beherakadarik izateko aukerarik, gero ezinezkoa bait da berriz ere hain tarte txikian maila gorenera itzultzea».

Vuelta irabaztea zen Indurainen helburua, eta gogor ekin zion, barrenak hustu arte. «Topera korritu nuen Vuelta, baina gero tartea izan nuen beherakada jasan eta berriz sasoi betean izateko, Tourra hasterako».

ko egunetako ahaleginek gero ordaina ekartzen dutela, indarrak gehien behar direnean. Lyoneko etapan Lemondek gehiegizko alde atera zigun, baina nire ustez galera amerikarrentzat izan zen».

Indurainen hitzak ez dira debaldekoak, Lemond agertzen bait zen hasieran faborito argiena; are gehiago aurreneko egunetik bi minutuko alde lortu ondoren. «Lemondek denbora asko atera zigun, gehiegi. Baina alde hori bere kontra bihurtu zen, eta galera ekarri dio. Eraso guztiak bere kontrakoak izan bait ziren hortik aurrera, eta Z taldean laguntza handirik ez zuen». Aleconeko erlojupekoa etorri zen gero, eta hortxe eman zuen lehen abisua Indurainek. «Lemond izan ezik, gainerantzekoei alde handixe atera nien. Baina Lemond hiru minutu aurrerago nuen».

Kolpe gogorra eman zuen ordea nafarrak Val Louronen, Piriniotako etapa gogorrean. «Mailot horia jantzi, eta Tourra irabaz nezakeela pentsatzen hasi nintzen. Hiru minutuko alde ona da, baina aurretik Lemondek niri ateratzen zidana horixe zen, eta galdu egin zuen. Ezin nezakeen pentsa, beraz, guztia egina zegoenik». Pariserako bidea luzea da, «eta etapa guztiak dira arriskutsuak. Egunak iragan ahala, ordea, gero eta hurbilago ikusten da. Nik profesionalen hamar urte behar izan ditut, orain nagoen tokiraino iristeko».

Lemond mendian menderatu badu Indurainek, bertan etengabeko erasoak egin ohi dituen Chiappuccik erlojupekoetan beherakada handia jasan du. «Italiarra korredore ausarta da, arriskutsua, baina Tourra irabazteko aukera guztiak galdu ditu erlojupekoetan. Aurreneko astetik hasi zen erasoan, eta Alpeetara leher eginda iritsi da».